

MERIENDATZERA ETORRI ZEN TIGREA



LIBURUAREN FITXA

KERR, Judith. *Meriendatzera etorri zen tigrea*. Pamiela-Kalandraka, 2010

Aurkezpena

Merienda ordua da, Sofia eta bere ama merienda hartzeko prest daudela ate joka ari dira. Nor ote da? Atea ireki eta zein topatuko eta tigre marradun iletsu handi eta gosetu bat. Sofiak eta bere amak adeitasunez hartuko dute tigrea beren etxean eta jaten eta edaten emango diote. Tigreak etxeko jaki guztiak jango ditu baita kanilako ur guztia edan ere. Sofiaren aita etxera iristean, han ez dago afaltzeko ezer. Eta zer egin ote du tigreak? Intriga puntua gordetzen da album guztiaren barnean agertzen diren harremanak noraino iritsiko ote diren jakin ezean. Juduek nazien garaian sufritu zuten jazarpenaren alegoria bat omen da ipuin hau. Judu aberatsek beren etxeak oreki zizkioten adeitsu naziei, baina naziak eta tigreek beren izaerari ezin diote uko egin.

Kontaketa

- Orriz orri marrazkiak behatu eta ahozko kontakizuna egin.
- Orri bakoitzean agertzen dena kontatu ondoren, hurrengoan zer ote datorren igarri arazi.

Proposamenak

- Zure etxean dena harrapatzen duen baten bat sartu da?
- Tigreak etxeko gauza guztiak jan ditu, ama alabek utzi egin diote, zergatik?
- Aita noa geratzen da etxera iritsi eta amak eta alabak tigrearen pasadizoa kontatzen diotenean?

Proposamenak zehazten

- Labezomorroak, inurriak, zakurrak, katuak, armiarmak... zein nahi dituzu etxean eta zeintzuk ez?
- Marraztu zuri beldurra ematen dizun animalia zure etxean.
- Zergatik diozu beldurra?
- Beste gelakoak gonbidatu.